

datuak...

Eskualdeko enpresen ia % 30ek berritzen dute

2017an, Bidasoaldean, 10 langile edo gehiago dituzten hamar enpresatatik ia hiruk diote azken bi urteetan berrikuntza motaren bat eraman dutela burura, berrikuntza teknologikoa (% 25) edo ez teknologikoa (% 16), esate baterako, berrikuntzak prozesuan, marketinean, etab.

Gipuzkoako gainerako lurraldearekin alderatuta, Bidasoaldeko enpresek antzeko emaitzak dituzte (Gipuzkoan % 31,1). EAEko batezbestekoa pixka bat handiagoa da (% 35,2).

48,7 milioi euroko gastua berrikuntzan

Bidasoaldeko enpresek berrikuntzan egindako gastuaren gutzitza 48,7 milioi eurokoa izan da 2017an, horietatik 42,2 milioi euroko gastua Irungo enpresek egin dute, eta 6,5 milioi eurokoa Hondarribikoek.

Konparazio bat egiteko, eskualdeko enpresek berrikuntzan egindako gastua % 16 handitu da azken urtean (41,9 milioi euro 2016an).

22 patente eman dira azken 5 urteetan

Industria jabetzaren tituluak dira, hots, patenteak, ideia berritzaileak babesteko era bat. Ildo horretatik, 2017an guztira 4 patente eman dira Irunen, eta beste 34 marka erregistratu dira Irunen eta 11 Hondarribian.

Eskualdean gero eta gehiago dira ezagutzen oinarritutako zerbitzu intentsiboei emandako enpresak

Ezagutzen oinarritutako Zerbitzu Intentsiboei (KIS –Knowledge Intensive Services– enpresak) emandako enpresei dagokienez, 1.766 dira, % 22 Hondarribian eta % 78 Irunen.

2018	Bidasoa	Hondarribia	Irun
Hezkuntza	296	74	222
Osasun jarduerak	269	50	219
Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	218	22	196
Arkitektura eta ingeniariak zerbitzu teknikoak...	198	54	144
Beste jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	160	47	113
Finantza eta aseguru zerbitzuen alorreko jarduera osagarriak	85	15	70
Enpresa kudeatzeko aholkularitza zerbitzua	92	24	68
Kirolak eta jolas eta aisiarako jarduerak	68	16	52
Publizitatea eta merkatu azterketak	44	9	35
Sorkuntza eta arte jarduerak eta ikuskizunak	64	17	47
Finantza zerbitzuak, aseguruak eta funtsak salbu	37	8	29
Informatika aholkularitza	55	13	42
Gizarte zerbitzuko jarduerak, ostatua kanpo	27	5	22
Herri administrazioa eta defentsa; gizarte segurantzak	23	6	17
Telekomunikazioak	17	1	16
Puntako teknologia zerbitzuak	33	5	28
Ezagutzen oinarritutako merkatu intentsiboko zerbitzuak	10	5	5
Ezagutzen oinarritutako finantza zerbitzuak	9	1	8
Ezagutzen oinarritutako beste zerbitzu intentsibo batzuk	61	14	4477
GUZTIRA	1.766	386	1.380

Iturria: Eustat (2018)

Berrikuntza Bidasoan

TAILERRAK

Zibersegurtasuna: Industria ingurunean zibermehatxu eta arrisku nagusiak eta halakoei aurrea hartzeko eta hautemateko dauden tresnak zertan diren jakin.

Adimen artifiziala: Aplikazioa prozesu energetikoetan, energia adimenduna.

Ekonomia zirkularra eta ekodiseinua: nola ezarri eko-berrikuntza.

Jardunaldi teknologikoa 4.0 industriaren teknologien gakoak ezagutzeko, sorkuntza arloko enpresei zuzendua.

PROIEKTUAK

Marketin digitalaren estrategia industria enpresarentzat.

Databi. Business Intelligence tresnen aplikazioa erabaki egokienak hartzeko aginte koadroa edukitzeko.

Teknomap. Eraldaketa digitaleranzko bultzada: enpresa bakoitzaren beharrietara egokitzen diren soluzioen mapa eraldaketa digitaleranzko prozesua bideratzeko.

FactoryMakers. Industria enpresak eta arlo digital era sorkuntza arloko enpresak elkarlanean jarduteko eta batera sortzeko gunea.

Tailerrak edo bilerak zerbitzu aurreratuei eta sorkuntza industriari emandako 40 enpresaren artean



Zerbitzu Aurreratuen Enpresa Katalogoa



2020an eskualdeko **20 enpresak** abiaraziko dituzte berrikuntza prozesuak...

Hazinnova agentea da Bidasoa bizirik. SPRIK eta Innobasquek sustatutako zerbitzua da **Hazinnova**. Enpresa txikiei zuzendua da lana antolatzeko era berrietan edo produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko bide berrietan urrats berriak egin ditzaten, erraz, azkar eta dohainik.

Bidasoa biziriken helburua da 2020an zehar eskualdeko 20 enpresarekin lan egitea berrikuntza proiektuetan.



Zure enpresa txiki edo ertaina berritzeko sarrera



KREA BIDASOA 2019,

Iragan martxoan Ficoban izan zen **Ekintzaitetza, Berrikuntza eta Sorkuntza Azoka KREA Bidasoaren** hamaikagarren edizioa.

"egin zerorrek/hazlo tú mismo" esloganarekin, Irun eta Hondarribiko Udalek, Bidasoa biziriken bitartez, egitarau guztiz oparoa eskaintzen diete enpresei, ekintzaileei, sortzaileei eta enpresa eta ekintzaitetza munduan ari den edo interesatua dagoen orori zuzenduta.



EGW ZERORREK
HAZLO TU MISMO
FaS-LE-OLMEME

